

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

“Geu Gasteiz” geldirik

201. ZENBAKIAREN ondoren ez da 202.a kaleratuko. Estitxu Breñas Gonzalez de Zarate aldizkariko zuzendariak adierazi du, desagertu baino agerkariaren argitaratzea eten egingo dutela. Etenaldi horren adierazgarri da azkeneko azalean marraztu duten puntu eta koma. Duela hamazazpi urte jarri zuen abian *Geu*



Gasteiz aldizkaria Geu elkarteak eta orain publizitateak eta salmentak behera egin dutelako proiektua eutsiezin bihurtu da. Zuzendariak adierazi duenez, bestalde, gutxienez hiru langile behar dituen proiektua lagun bakarreko plantillak sostengatu du hamabi urtez.

Euskarazko hezkuntza- rentzat laguntza erdiak

2010EAN, Nafarroan, Euskarazko Hezkuntza Garatzeko programaren aurrekontua 639.389 eurotik 299.101era pasako da. Murrizketa horrek D ereduari matrikulatuta dauden eta eredu hori etxetik bost kilometro baino urrutiago duten 500 familiei eragiten die, garraiora-

ko eta jangelarako diru-laguntzak 259tik bost eurora murriztu baitizkie. Bertso eskolak eta idazle edo antzerki euskaldunen topaketak ere diru-laguntzarik gabe geratuko dira 2010eko aurrekontuetan. Bestetik, UPNren emendakin bat onartu ondoren, euskarazko egonaldi eta udalekuearako laguntzak 195.000 eurotik 65.000 eurora murriztu ditu Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun batzordeak.

www.tokikom.com

TOPAGUNEAK atari berri hori sortu du, beregan biltzen dituen 42 tokiko hedabideak marka baten inguruan batu eta talde izaera azpimarratu nahian.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Lionel Jolyk Jakin 174 (graila-urria) agerkarian esanak: “Euskaltzaindiari lotzen zaion gaia hizkuntzalaritza da. Batzuek hizkuntzalaritza soziolinguistikaren gainetik kokatzen dute; beharbada arrazoiak edukiko dute eta mota honetako eztabaidetan sartzea ez dagokit. Dena den, zientzialariek ohitura izaten dute diziplinartekoak diren zientziak haien eremura eramateko. Hizkuntzalariek soziolinguistikaren arloa haien azpiadar berri bat dela pentsatzen dute, azken 50 urteotan sortua. Soziolinguistik, alderantziz, hizkuntza beti praktikarekin lotuta dagoenez, hizkuntzalaritza gizarte-koa izan behar dela diote. Soziologoek soziolinguistika haien azpiadarra dela irudikatzen dute, hizkuntz soziologia deiturikoa. Eztabaida horiek, lubaki gerra batean bihurtzen ez badira, gerra guztiak bezala kaltegarri izanik, probetxugarriak izan daitezke arlo berrirako”.

TALAIAN

Aldaketa klimatikoa: ondorioak ordaindu

Joan den astean aldaketa klimatikoaz goi bilera hasi zen Kopenhagen. Milaka politikari, zientzialari, ekonomialari, ekologista eta abar ari dira eztabaidatzen aldaketa klimatikoaren ondorioez, eta planeta guztiari, baina batez ere herrialde txiroenei eta euren herritarrei eragiten dien egoera berri horri aurre egiteko hartu beharreko neurriez.

Arrisku larriak daude gizateriarentzat, gero eta nabarmenagoak gainera, aldaketa klimatikoa dela-eta. Diru-sarrerak gutxi duten herrialdeak eta beren geografiatik sentikorrekin direnak dute arrisku gehien. Ikerketek adierazten dutenez tenperaturaren bi graduko igoerak zerealeko-produkzioaren %5 eta %20 arteko murrizketa ekar lezake hegoaldeko Asian, hego-ekialde asiarran eta Sahara azpiko Afrikan. Gosea eta desnutrizioa handituko lirateke. Beraz, aldaketa klimatikoa gehien jasaten dutenak ez dira industrializazio basatiarekin aldaketa hori eragin dutenak (AEB, Txina, India, Europa...), baizik eta industrializaziotik urrun bizirautean dutenak. Gosez eta gaixotasunez milioika pertsona hiltzen dira eta hiltzen segituko dute herrialde horietan.

Egoera horren aurrean, herrialde aberatsak urrats erabakigarria eman behar lukete eta konprometitu beharko lirateke aldaketa klimatikoaren aurrean neurri eraginkorrak hartzea, bai eta horiek finantzatzera ere. Aldaketa klimatikoaren eraginari egokitzeko, urtean 100.000 milioi dolar jarri beharko luketela kalkulatzen da. Eta hortxe dago Gailurraren gai giltzarrietako bat: izan daitezela herrialde aberatsak hori finantzatzeko dutenak. Konpromiso hori betetzea ez litzateke printzipio simple bat betetzea besterik izango: “Kutsatzen duenak ordaintzen du”. Eta kutsatzaile nagusienak herrialde aberatsak dira!

Juan Mari Arregi